

---ZENBAKIZKO PROPORTZIONALTASUNA---

MAGNITUDEEN ARTEKO ERLAZIOAK

1. Honako magnitude bikote hauetan, esan zeinek duten proportzionaltasun erlazioa zuzena **(ZP)**, zeinek alderantzizko proportzionaltasun-erlazioa **(AP)**, eta zeinek ez duten proportzionaltasun erlaziorik **(EP)**:

- a) Saldutako kilo kopurua eta irabazitako dirua.
- b) Lan bat egiten dabilzan langile kopurua eta emandako denbora.....
- c) Pertsona baten adina eta duen altuera.....
- d) Ibilgailu baten abiadura eta ordu erdian egindako distantzia.....
- e) Txorrota batek zabalik egiten duen denbora eta botatzen duen ur kantitatea.....
- f) Txorrota baten emaria eta depositu bat betetzeko behar duen denbora.....
- g) Liburu baten orri kopurua eta liburuaren prezioa.....

2. Aztertu honako taula hauek, eta esan zer diren: proportzionaltasun zuzenekoak **(ZP)**, alderantzizko proportzionaltasunekoak **(AP)** ala ez bata ez bestekoak **(EP)**

A	1	2	4	
B	40	20	10	

A	1	2	3	
B	5	10	15	

A	1	2	3	
B	5	10	20	

PROPORTZIONALTASUNA ZUZENA ETA ALDERANTZIZKOA.

Hiruko eregela

3. Hiru kilo eta erdi patata 1,75 €-an erosi ditugu. Zenbatean erosiko ditugu lau kilo eta erdi?proportzionalak. Eraitza:

4. Lau langilek 8 ordu behar izan dute lursail bat garbitzeko. Zenbat denbora beharko lukete 6 langilek?proportzionalak. Eraitza:

5. Soldatzaile talde batek, egunean 8 ordu lan eginda, 20 egunean berritu dute kale bateko espaloia. Zenbat denboratan egingo lukete egunean 6 ordu lan egin da?proportzionalak. Eraitza:

6. 500 orriko pakete batek 1,8 kg-ko pisua du. Zenbateko pisua izango du 850 orriko piloak?proportzionalak. Eraitza:

BANAKETA ZUZENKI ETA ALDERANTZIZKO PROPORZIONALAK

7. Hiru lagunek kotxe bat alokatu dute 30 egunerako. Jonek 2 egunez erabili du; Pedrok, 15 egunez; eta Rufinok gainerako egunak. Prezioa 600 €-koa bada, zenbat ordaindu behar du bakoitzak?

jone€

pedro€

rufino€

8. Tirolina Parke bat eraikitzea erabaki dute, eta haren kostu osoa, 150.000 eurokoa, hiru herrik ordaindu beharko dute, parkearekiko duten distantziarekiko alderantzizko proportzioan. Durango 10 km-ra dago, lurreta 5 km-ra eta Abadiño 2 km-ra. Kalkulatu herri bakoitzak ordaindu behar duen diru kopurua.

Durango€

lurreta€

Abadiño€

PROPORTZIONALTASUN KOPOSATUA

9. 25 langile behar dira 6 egunean bide bateko 1 km-tan asafaltoa jartzeko. Zenbat langile beharko dira 8 egunean 7 km-tan zola jartzeko?langile

10. Haztegi bateko 140 oilo 100 kg arto 12 egunean jaten dute. Zenbat egunean jan dezakete 6 oilo 100 kg arto?egun

EHUNEKOAK

11. Garbiketa-enpresa batek 180 langile ditu; %35ek gauez egiten dute lan. Zenbat langile ari dira gaueko txandan?langile gaueko txandan
12. Garbiketa-enpresa batek 63 langile ditu gaueko txandan; hau da, langile guztien %35. Zenbat langile dira, guztira, enpresa horretan?langile guztira
13. Garbiketa-enpresa bateko 180 langileetatik, 63 gaueko txandan ari dira. Ehuneko zenbat ari dira gauez?% gauez daude
14. Merkataritza-guneko aparkalekuak 180 leku ditu eta berriztatu egingo dute, %20 handiago bihurtuz. Zenbat leku izango ditu lanak amaitu ondoren?leku daude aparkalekuan
15. Aurreko hiruhilekoan, 620 istripu egon ziren gure artean. Neurriak hartu eta gero, agintariak istripuak %15 gutxiago izango direla uste dute. Horrela izanez gero, zenbat istripu izango dira, gehienez, oraingo hiruhilekoan?.....istripu